GORLIZKO OSPITALEAN ARMARIK GABE ZAINTZEKO ETA SEGURTASUNA KUDEATZEKO ZERBITZUAK EMATEKO *BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN AGIRIA*

2025/02619 Espedientea

Zaintza eta Segurtasun Zerbitzu hori honako baldintza tekniko hauen arabera eman beharko da:

1. KONTRATUAREN XEDEA: PRESTAZIOAREN EDUKIA

Plegu honen xedea eginkizun hauek izango ditu:

a) Ospitalerako bisiten, hornitzaileen eta guardiako langileen sarbidearen kontrola, Ospitaleko Zuzendaritzak edo hark eskuordetutako pertsonak aldizka ematen dizkion jarraibideei jarraituz. Horretarako, Ospitaleratzearekin, Informazioarekin eta Harrerarekin harremanetan egon beharko du beti, eskatzen zaion edo behar den guztirako.

b) Barneko eta kanpoko sarbideak zaintza eta babestea.

c) Zentroko langileak, pazienteak eta bisitariak babestea eta kontrolatzea.

d) Perimetroko hesia eta ospitalea inguratzen duen horma eta zentroko eraikinen kanpoaldea zaintzea eta kontrolatzea.

e) Ibilgailuen aparkalekuen eta geldialdien kontrola, Gorlizko Ospitaleak horretarako duen araudia betearaziz. Une bakoitzean indarrean dauden aparkatzea kudeatzeko sistemak koordinatzea eta laguntzea.

f) Barruko aretoak babestea eta ondasunen osotasuna zaintzea, susmagarriak identifikatzea eta gatazkak sortuz gero langileak babestea. Behar den laguntza ematea arrisku-egoerak jazotzen direnean, ospitalearen jarduera normala eragotz dezaketen jokabide edo gertaerak ekiditeko helburuarekin.

g) Beharrezko kanpoko eta perimetroko argiztapena egiaztatzea.

h) Instalazioetan hautematen diren kalteak antzematea (ur-eroanbideak, berokuntza, etab.), bai eta sutea eragin dezaketen materialak edo egoera egokiak ere. Gorabehera material bat hautematen bada, ospitaleko arduradunari jakinaraziko zaio.

i) Instalatuta dauden edo instalatuko diren segurtasun-sistema eta -mekanismoen eguneroko azterketa eta berrikuspena egitea.

j) Tabakoaren aurkako araudia hausten duten jokabideak kontrolatu eta detektatzea, ospitalearen jarraibideei eta indarrean dagoen araudiari men eginez.

k) Patruilak edo errondak egitea ospitaleko zuzendaritzak edo hark eskuordetzen duen arduradunak zehaztutako irizpideen arabera, baita horiek kontrolatzeko sistema bat ere. Esleipenduna arduratuko da mota horretako kontrol-sistemak instalatzeaz eta mantentzeaz.

l) Ospitaleko edozein eremutan, guardiako medikuak, erizainak edo Unitatean laguntza behar dutenean, Zentroko langileei babesa eta laguntza ematea, gatazka- edo arazo-egoera potentzialean edo errealean daudenei. Erabakia hartu ondoren, ohiko zereginera itzuliko da.

m) Ospitalean instalatuta dauden edo instalatuko diren zaintza-sistema eta -ekipamendu zentralizatuen edota osagarrien babesa, maneiua eta kontrola, direla telebista-zirkuitu itxikoak edo bestelako kontrok elektrikoak, haien erabilera egokia bermatu ahal izateko ospitaleko zuzendariak edo hark eskuordetzen duen arduradunak enpresa esleipendunari emango dizkion jarraibideak aintzat hartuz, eta betiere oinarrizko eskubideak (ohorea, norbanakoaren zein familiaren intimitatea, norberaren irudia, etab.) babesteko indarrean dagoen legeriari eta *Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa*rekin bat etorriz. Halaber, barnebilduta geratzen da segurtasun-langileen egitekotzat har daitekeen edozein segurtasun-sistema eta -azpisistemaren maneiua eta kontrola: bidegabe sartzea, suteak, sarbideen kontrola, etab. Aurreko paragrafoan aipatu diren sistemen eta azpisistemen maneiuan edo zaintzan jokabide engainagarri edo arduragabeak erabiltzearen ondorioz sor litezkeen kalteen edo ezbeharren erantzuletzat hartuko da enpresa esleipenduna.

n) Halaber, aipatutako sistema eta ekipamenduek, jada abian daudenek eta etorkizunean ospitalean instala daitezkeenek, segurtasun-langileek modu engainagarrian edo arduragabean erabiltzeagatik jasan ditzaketen kalte edota matxuren erantzulea izango da enpresa esleipenduna.

Horretarako, enpresa esleipendunak bere langileak zuzkituko ditu behar bezalako ekipamendu eta mekanismoekin (telefonoak, pertsona-bilagailuak, etab.), ezarrita dauden, edo etorkizunean ospitalean instala daitezkeen, alarma-sistemen kontrol jarraitua eta etengabea bermatu ahal izateko, eta kontratuaren iraunaldi osoan haiek funtzionamendu-gaitasun betean edukitzera behartuta egongo da, eta bere gain hartuko ditu haiek guztiz prest edukitzeak edo, behar izanez gero, haiek berritzeak, erakar ditzakeen gastuak.

o) Lanaldi bakoitzean osasun-zerbitzurik eman gabe dauden ospitaleko areto guztietako leihoak eta ateak itxita, hala nola ospitale osoko argiak itzalita daudela egiaztatzea. Mantentze-lanetako arduradunak ez daudenean, ospitaleko ateak irekitzea.

p) Eguraldi txarra denean, ibilgailuen eta oinezkoen trafikoaren antolamenduan laguntzea, ospitalerako irispidea erraztuz.

q) Ospitalera heltzen direnei sarbideez eta informazio-guneei buruzko argibideak ematea.

r) Ospitale guztiko giltzak eta esleitzen zaizkien sarraila elektronikodun sarbideetako txartelak kontrolatu eta jasotzea; enpresa esleipendunaren erantzukizuna izango da horien galera, edozein arrazoigatik gertatzen delarik ere, hala nola ospitaleko Zuzendariak edo hark eskuordetzen duen arduradunak aurretiaz baimena eman gabe haien kopia egitea. Dena delakoagatik kontratua amaitzen denean, enpresa esleipendunak Zuzendaritzaren edo hark eskuordetzen duen arduradunaren eskuetan ipini beharko ditu bere zaintzapean dituen giltza guztiak (jatorrizkoak zein kopiak), eta hein horretan gerta litekeen edozein jarduketa okerrek eragindako kalte eta galeren erantzulea izango da.

s) Gaueko zerbitzuan, telefonogunean sartzen diren deiei edo telefono mugikorrez iristen direnei erantzutea, segurtasun-langileak erronda egiten ari diren bitartean. Halaber, behar izanez gero, gaueko zeladoreari eta solairuari jakinarazi beharko zaizkie zeladoreak eta solairuko langileek beren lana egiteko ezagutu behar dituzten ospitaleratzeak, lekualdatzeak eta bestelako jarduketak. Txanda horretan, gainera, garbiketako langileei eman beharko dizkie instalazioetara sartzeko giltzak eta/edo txartelak, eta horien erregistroa eta kontrola egin beharko ditu.

t) Segurtasun-zaindariak berehala erantzuna ematea edozein abisu edo dei jasotzen denean edozein komunikabideren bitartez (zuzenekoak edo edozein komunikazio-ekipamenduren bidezkoak izan).

u) Nolanahi ere, eta bereziki larritzat jotzen diren eta behar besteko bermeekin aurre egin ezinezkotzat irizten diren abaguneetan, behar adinako laguntza eskatu beharko zaio enpresaren egoitza nagusiari edota ordena publikoko indarrei, behar izanez gero, eta jakinarazi beharko zaio ospitaleko zuzendariari edo hark eskuordetu duen arduradunari.

v) Behar besteko baliabideak eskura izatea ordubete baino gutxiagoko epean bete ahal izateko segurtasun-zaindariaren ustekabeko ezintasunak (ondoezagatik, ordutegiak oker antolatzeagatik, etab.).

w) Aintzat hartzea ospitaleko autobabeseko planetik enpresa esleipendunarentzat eratortzen diren betebehar guztiak; horretarako, kontratua sinatu ondoren haren kopia bat helaraziko zaio, eta baita ospitaleko zuzendaritzak ezar ditzakeen gainerako plan berezi guztiena ere.

x) Atal horretan zehazten diren egiteko guztiei dagokienez, ospitaleko zuzendariak edo hark eskuordetzen duen arduradunak berezkoa izango du haietako bakoitzaren edukia ebazteko eskubidea, hala nola zaintza- eta segurtasun-zerbitzuarekin zerikusia duten beste edozer egitea eskatzekoa ere, ospitalearen beharrizanak aintzat hartuz eta segurtasun pribatuko gaietan indarrean dagoen arautegiari men eginez.

y) Aurretiaz aipatu diren gaiekin zuzenean nahiz zeharka lotuta dagoen beste edozein gorabehera.

2. ZERBITZUAK ZAINDU BEHAR DITUEN GUNEEN DESKRIPZIOA

Zaindu beharreko eraikina edo eraikinak eta haien inguruneak honako hauek dira:

1. eraikina	Ospitaleratzea, beheko solairua + 3	11.159 m2
2. eraikina	Igerilekua, beheko solairua + 1	1.694 m2
3. eraikina	Sukaldea, beheko solairua + 3	2.337 m2
4. eraikina	Kafetegia	145 m2
5. eraikina	Galdarak	630 m2
6. eraikina	Tailerrak	376 m2
Kanpoaldea		45.0

3. PLANOAK ETA SEGURTASUN-INGURUABARRAK

Osasun-zentroaren zuzendaritzak enpresa esleipendunari helaraziko dio zaintza-, segurtasun- eta kontrol-lanak ahalik hobekien egin ahal ditzan:

a) Aretoen babes-, zaintza- eta alarma-sistemen kontrolak eta plano zehatzak.

b) Ureztatze-ahoen eta suteak itzaltzeko sistemen harguneen kokalekua.

c) Ospitaleko giltzen armairuaren antolamendua eta erabiltzen den nomenklatura.

d) Beste instalazio berezi batzuen ezaugarriak eta kokapena.

e) Autobabeseko plana, eta Zentroko Zuzendaritzak ezartzen dituen beste protokolo espezifiko batzuk.

4. ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK: LANPOSTUAK ETA LANGILEEN EGONALDIEN ORDUTEGIA

4.1. Kontratatutako zaintzan bete beharreko ordutegia honako hau izango da:

Urteko egun guztietan 24 orduz, larunbatak eta igandeak barne

4.2. 24 ordu eskueran

Eskaintza egiten duten enpresek Ospitalearen beharren esanetara eguneko 24 orduetan egoteko konpromisoa hartu beharko dute, noizbehinkako errefortzu-zerbitzuak eman ahal izateko edozein unetan, bai lanegunetan bai larunbat eta jaiegunetan.

ZAINTZA-LANPOSTUA	GUTXIENEKO LANGILE KOPURUA
• Sarrerako etxola eta Ospitalera sartzeko kanpoaldea, edo • Informazioa, beharren arabera, edo • Ospitaleko Zuzendaritzak izendatzen duen beste edozein kokapen egoki.	1

5. LANGILEAK

5.1. Kontratu hau egikarituko duen enpresa esleipenduneko langileak ondorengo ezaugarri hauek aintzat hartuta hautatu beharko dira:

- Behar besteko prestakuntza psikologikoa eta heldutasuna izatea. Trebetasuna eduki beharko dute bereziki ospitalean eta bertako bisita-orduetan gerta litezkeen gertakari motekin.
- Prestakuntza fisiko nahikoa.
- Suteen detekzio-sistemen eta autobabes- eta emergentzia-planen ezagutza teknikoa.
- Gure ospitalera etortzen diren zaindari guztiek zinpeko zaindari tituludunak izan beharko dute, eta inoiz eta inola ere ez laguntzaileak.

5.2. Enpresa esleipendunak bete beharko ditu, gutxienez, ondorengo irizpide hauek lehiaketa honen xedea diren ospitalerako zaindariak hautatzerako orduan:

- Segurtasun-zaindaritzako prestakuntza-moduluetan aginduta dagoena betetzea, zehazki alor sozioprofesionaleko moduluan datorrena, non jasotzen baitira deontologia profesionalari buruzkoak

eta baita ere profesionaltasunarekin zerikusia duten gaiak. Alegia, idatzizko adierazpen egokia, giza harremanetarako trebetasuna, elkarrizketak egiteko gaitasuna.

- Segurtasun pribatuari buruzko legean, erregelamenduan eta aginduetan zehaztuta dauden jarduketetarako oinarrizko irizpideak betetzea; haien artean, aipa ditzakegu: a) Legezkotasuna, babesa, proportzionaltasuna, lankidetza, zintzotasuna, zuzentasuna; b) jarduera profesional egokitik eratortzen direnak: zalutasuna eta presentzia, kalitatea, prestakuntza eta eguneratzea, eta azkenik bete betebehar etikoena; eta c) eraginkortasuna, leialtasuna, sekretu profesionala, egiatasun printzipioari lotutako informazio betebeharra eta lankidetza herritarra.

- Enpresa esleipendunak autobabeseko prestakuntza eman beharko die (bere kontura) zaintza eta segurtasuneko langileei, Gorlizko ospitaleko autobabeseko planean barneratuta geratuko baitira haiek. Ordezkapenak eginez gero, ordezko langileek ere langile titularrek dituzten betebehar berberak izango dituzte. Era berean, ahalbidetu beharko du zaintza eta segurtasuneko langileek ere ospitalean antolatzen diren autobabeseko planari buruzko prestakuntza-saioetara etorri ahal izatea.

5.3. Berariaz, Gorlizko ospitalean lan egiten duten segurtasuneko langileek honako arau hauek bete beharko dituzte:

- Segurtasun-zaindariek portaera eredugarria eduki beharko dute eta tabakoaren aurkako arauak bete eta betearazi egin beharko dituzte.

- Segurtasun-enpresako langileak ez du inolako solasik egingo pazienteekin eta bisitekin haien gaixotasunei buruz, eta inoiz ere ez die aholkurik emango beren eritasunei buruz, ezta beste gaixo batzuei buruzko iruzkinik egingo ere. Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak xedatzen duen eran tratatuak eta babestuak izango dira datu pertsonalak.

5.4. Gorlizko ospitaleak eta esleipena lortzen duen enpresak adostuko dute, behar denean, zein den prozedurarik onena zaindariak trabatzeko ospitaleko eremuetan jada abian dauden edo etorkizunean instala daitezkeen segurtasun-sistema mekanikoak eta elektrikoak zaintzen, maneiatzen eta iraunarazten.

5.5. Esleipenduna behartuta egongo da zuzendaritzaren ustez osasun-zentro batean behar besteko zorroztasunez aritzen ez diren, beren egitekoetan behar bezain arretatsuak ez diren edo zuhurtasun nahikoa ez duten langileak bertatik eramatera, hark hala eskatzen dion kasuetan.

6. ESLEIPENDUNAREN BETEBEHARRAK: UNIFORMEAK ETA ZUZKIDURA

Esleipendunaren betebeharra izango da langile guztiak bere kontura uniformez janztea zerbitzua egiten duten orduetan, klimatologiarako egokiak diren arropa emanez, eta haiek etenik gabe identifikazio-plaka (bereizgarria) eraman beharko dute ageriko lekuan, aplikagarria den segurtasun pribatuaren araudian horretarako ezarrita dauden aginduei men eginez betiere.

Uniforme horrek laneko arriskuen prebentzioko arauditik eratortzen diren irizpideak bete beharko ditu eta, bide batez, araudi hori bete egin beharko du oro har eta, bereziki, egokituta egon beharko du behar bezala lan egin ahal izateko, bai eraikinaren barnealdean eta baita haren kanpoko aldean ere, eta edozein eguraldirekin.

Uniformearen nolakotasunari dagokionez, arreta berezia eskaini beharko zaio langilearen higiene egokiari eta haren kanpo-itxurari, eta ezingo dute eraman zerbitzuarekin harremana izan dezaketen pertsonentzat edo zaindarientzat beraientzat ere arriskugarria izan daitekeen elementu estetikorik.

Urezarantza Ibiltokia 1; 48.630-GORLIZ (Bizkaia) / Telf.: 944 00 66 00

Bidenabar, enpresa esleipendunak konpromisoa hartzen du zaindarientzat eta zerbitzurako honako elementu hauek zuzkitzeko:

ZAINDARIAREN HORNIDURA PERTSONALA:

- Babeskia eta eskuburdinak (segurtasun pribatuko arauzko irizpideen arabera).
- Ebakiduren eta ziztaden aurkako eskularruak.
- Txaleko islatzailea bizkarrean SEGURIDAD/SEGURTASUNA serigrafia duela.
- Norbanakoaren linterna taktikoa.

ZERBITZURAKO ZUZKIDURA:

- Gorabeheren argazkiak modu eraginkorrean lortzeko eta horiek biltegiratzeko sistema.
- Linterna.
- Telefono mugikorra.

Plegu honen xedea den zerbitzua egingo dutenen funtzioa armarik gabe egingo da betiere.

7. KOMUNIKAZIO-SISTEMAK

Enpresa esleipenduneko zaintza eta segurtasuneko langileek komunikazio-tresnak eduki beharko dituzte, une oro ahalbidetuko dietenak harremanetan egoten beste zaindariekin –bat baino gehiago direnean–, ospitaleko Kontrol Zentroarekin, baita zuzendariarekin edo hark eskuordetutako zentroaren segurtasunaren arduradunarekin eta segurtasun indar publikoekin ere. Komunikazio horrek eraginkorra izan behar du une oro eta estaldura bermatzeko gai izan behar du lehiaketa honen xedea den ospitalearen baitako edozein puntu edo gunetan.

Komunikazio-sistemek aurikularrak edo antzeko gailuak eduki beharko dituzte segurtasunezko elkarrizketen konfidentzialtasuna bermatu ahal izateko eta ospitalearen erabiltzaileen lasaitasunerako. Halaber, ospitaleak eman diezazkieke bestelako komunikazio- eta posizionamendu-tresna batzuk, zentroak berez dituen komunikazio-sistemekin bateragarriak direnak, eta zaindariek nahitaez erabili beharko dituztenak.

8. MENDETASUN FUNTZIONALA

Esleipendunak betiere ospitaleko zuzendaritzak ematen dizkion jarraibideei men egin beharko die zerbitzuaren orientabide orokorrari dagokion guztian hala nola une bakoitzean erabakitzen diren lehentasunei dagokienez, eta urteen joanean ager daitezkeen beharrizan aldakorretara moldatu egin beharko du.

Zuzendaritza ekonomiko-finantzarioarekin edo hark eskuordetzen duen arduradunarekin izango dute mendetasun funtzionala zaintza, segurtasuna eta kontrolaren esleipenduna den enpresako langileek.

Enpresa esleipendunak bere ordezkari baimendu bat izendatuko du kontratuaren egikaritze zuzena bermatu ahal izateko.

9. PARTEAK ETA TXOSTENAK

9.1. EGUNEROKO GORABEHEREN PARTEA:

- Segurtasun-zaindariek egunero egin beharko dute gorabeheren parte bat, non azalduko baitira beren jarduketarekin zerikusia duten berri guztiak eta, bereziki, lanaldian gertatu diren gorabeherak.

- Partea formatu digitalean egingo da eta erregistratu egingo da, kontrolerako, beharrezkoa bada argazkiak eta azalpen-dokumentuak gehituz.

- Zaindari bakoitzak bere partea egin behar du, eta zerbitzua egiten duten zaindariak bezainbat parte egingo dira.

- Eguneroko zerbitzu-parteak, beste edozein informazio-dokumentu bezala, ezin izango dira ospitaleko instalazioetatik, eta berariaz, segurtasun-gaietako guneetatik kanpora eraman.

9.2. GORABEHERAREN TXOSTENA:

- Segurtasun-gorabeheraren bat gertatzen denean, esku hartu duen edo ezagule den zaindariak berariazko parte bat beteko du, gorabehera hari buruzko inguruabar guztiak jakinaraziz.

- Nolanahi ere, zerbitzu-aldian gertatzen diren gorabeherak berehala jakinarazi behar zaizkio zuzendaritzari, horien berri izan eta berehala, eta gero, gehienez 24 orduko epean, baldin eta gorabeheraren tasunek ez badute epe luzeago bat eskatzen, hari buruz egin beharko den parte edo txostenaz gain.

- Txosten guztien kopia bat eskura izango du zuzendariak edo hark eskuordetu duen ospitaleko arduradunak.

ZERBITZU OROKORRETAKO ARDURADUNA

LA RESPONSABLE DE LOS SERVICIOS GENERALES

ARANTZAZU AZKARRAGA RIPOLL - 16054151J

Firmado digitalmente por ARANTZAZU AZKARRAGA RIPOLL - 16054151J
Fecha: 2025.12.29 11:38:10 +01'00'

Izpta./Fdo.- ***ARANTZAZU AZKARRAGA RIPOLL***